

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Hainbat baliabideren beharrea gaude PERCEPTION enpresa aurrera eramateko. Hurrengo hauexek dira garrantzitsuenak:

Baliabide fisikoak:

- Fabrika bat Gasteizeko industrialdean.
- Ordenagailuak betaurrekoak diseinatzeko.
- Betaurrekoak ekoizteko makinak.
- Mugikor bat sare sozialetan gure enpresa zabaltzeko.

Baliabide intelektualak:

- “PERCEPTION” izena eta markaren patentea EPO-n (Europako Patenteen Bulegoak).
- Trebetasun soziala salmentetarako eta funtsezko elkarrekin harremana sendotzeko.
- Otorrinolaringologoaren eta gorrerian adituak direnen laguntza eta aholkularitza.
- Proiektu honetan lagundu nahi duten gorren aholkuak eta feedback-a.

Finantza-baliabideak:

- Lau kideon artean batutako hasierako kapitala (100.000€).
- Inbertsore potentzialen, diru-laguntza publikoen (Gasteizeko Udala, Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Espainiako Gobernua), GKE-en (Euskal Gorra, La ONCE, Aspator, etab.) eta bankuko maileguen artean batzea estimatzen dugun kapitala (1.500.000€).

Giza-baliabideak:

- Eduardo: Oso iaioa da ondasunak diseinatzen, eta ekoizpenaren zuzendaria izango da.
- Iñigo A: Sare sozialak menperatzen ditu, eta bere lana gure enpresa hedatzea eta erosleak bilatzea eta erakartzea izango da.
- Iñigo L: Oso matematikari ona da eta finantzen mundua ondo ulertzen du. Ondorioz, finantza-aholkularia izateaz gain, bankuko tramiteetaz arduratuko da.
- Martin: Bere lider dohaiak taldearen kohesioa mantenduko du. Gainera, komunikatzeko trebetasuna duenez, enpresaren bozeramaile izendatuko dugu.